

GURASOTASUNA SUSTATZEKO ON-LINE PROMOZIOA

6-12 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei gurasotasun gakoak komunikatzeko ikastaroa

- * **ON-LINE IKASTAROA:** “6-12 urteko seme-alabak dituzten familiei gurasotasun gakoak komunikatzeko ikastaroa”
- * **MODALITATEA:** ON-LINE eta aurrez-aurreko bi saio (hasieran eta amaieran)
- * **NORI ZUZENDUA:** Hezkuntza alorreko eta alor sozialeko profesionali
- * **IKASTAROAREN IRAUPENA:** 90 ORDU (gutxi gora-behera)
- * **ERAKUNDEA:** Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Familia politika eta Aniztasuna. Eusko Jaurlaritza.
- * **KOSTUA:** Doakoa
- * **IZEN-EMATEA:** 2020ko Urria (zehazteke)
- * **HASIERA DATA:** 2020ko Urria (zehazteke)
- * **AMAIERA DATA:** 2020ko Abendua (zehazteke)
- * **INFORMAZIO GEHIEGO JASOTZEKO:** Telefonoz deitu: 94 405 15 49 edo korreoa bidali: elarning@etxadi.org
- * **IZENA EMATEKO** mezu bat idatzi posta elektronikoko honetara (elarning@etxadi.org) ondorengo datuekin:

1.- Izen-abizenak:

2. - Harremanetarako telefonoa:

3.- Posta elektronikoko pertsonala:

4.- Posta arrunta:

5.- Lanbidea:

6.- Zentroa-Zerbitzua-Lantokia:

7.- Ikastaroa burutzeko hautatutako hizkuntza (derrigorrezkoa da euskara edo gaztelania aukeratzea):



* IKASTAROAREN HELBURU OROKORRAK:

- Familiekin Lehen Mailako Prebentzio batetik lan egiten duten profesionalen konpetentziak garatzea, programak burutzeko edota daudenak osagarritzeko.
- Hautatutako profesionala, *gurasotasunaren* irizpideak oinarri izanda haur hezkuntzako gai praktikoetan gaitu familiekin eguneroko komunikazioa errazteko.
- Profesionalak familiekin batera tresna orokorrez hornitu, hazkuntza eta hezkuntza gaietan modu paralelo batean lan egiteko.
- Profesionalei, adin txikikoen garapeneko atal desberdinak indartzeko eta aurreratzeko estrategia praktikoak eskaini, familiei helarazi ahal izateko.
- Familiekin egunerokotasunean lan egiteko baliabide teoriko praktikoak bereganatzea.

* SARRERA:

“6-12 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei gurasotasun gakoak komunikatzeko” on-line ikastaroa, familiekin lan egiten duten gizarte zerbitzu, hezkuntza edota osasun arloko profesionali bideratua dago eta **lehen mailako prebentzioan** oinarritzen da.

Ikastaro honen helburua, ikuspuntu prebentibo batetik, profesionali, *gurasotasunaren* irizpideak oinarri dituzten hazkuntza eta hezkuntza jarraibideen informazio teoriko-praktikoa helaraztea da. Hau da, **arrisku-maila ertaina edo baxua** duten familiei mezu argiak eta eskuragarriak helarazteko edukiak lantzen dira.

Ikastaro honetan lantzeko aukeratu diren gaiak, egungo familien beharrezanetatik eratorzen diren gai espezifikoak dira. Gai hauek, ez dira berez, problematikoak. Egoera bakoitza bideratzeko moduak ezartzen du familia baten eta bestearen aldeko ezberdintasuna. Hori dela eta, profesionalak ikastaroan, familiarekin batera hezteko lagungarriak izango zaizkion edukiak eta herramientak aurki ditzake. Horrez gain, familiarekin irizpideak bateratzeko baliogarri izango zaio, familiak

beraien seme-alaben hazkuntzan eta hezkuntzan **konpetente** sentiarazteko.

Finean, profesionala, familiei oinarrizko irizpideak helarazteko konpetente sentitzea da. Horretarako, profesionalak, adin txikikoen garapen psikologiko osasuntsua sustatzeko kontutan izan behar diren irizpideak ezagutu behar ditu, baita, familiekin erabil ditzakeen **material** eta **herraminta** erabilgarriak (bideoak, web orrialdeak, jarduerak...) ere. Honako ezagutza eta baliabide hauek, familia bakoitzari egokitu behar zaizkio. Horrela, eraginkortasun handiagoz helaraziko zaizkie familiei, jakin eta barneratu behar dituzten oinarrizko ezagutzak.

Aurreko horri jarraiki, lehengo atalean (0), profesionalak, familia etorkin bati ikastaro honen edukiak (hazkuntza eta hezkuntza gaiak) nola komunikatu eta ulertarazi diezaiokeenaren adibide bat zehazten da. Profesionalak, honako adibide hau erabil dezake lehen mailako prebentzioan dauden familiei bideratutako prebentzio programa bat diseinatzeko.

Bigarren atala, familia orok ezarria duen funtzionamendu eta antolakuntza orokorrarekin harreman dago (funtzioak, egungo zailtasunak, beste familiako kide batzuekiko harremana, familia-lanaren uztarketa...). Ondoren, hirugarren atalean, ikastaro honi dagokion 6-12 adin-tartearen garapen ebolutiboari buruzko alderdiak zehazten dira, laugarren eta bostgarren atalekin osagarritzen dena. Atal hauetan, egungo familiei, beraien seme-alabekin harremanetan sortzen zaizkien kezken egoera zehatzak aurkezten dira. Horrez gain, profesionalak modu egoki batean orientatzeko eta bideratzeko gakoak ematen dira.

Atal bakoitzak, aurre-ebaluaketa eta -ostekoa barnebiltzen ditu. Erdibidean jarduera interaktibo batzuk agertzen dira, ikaskuntza eta komunikazioa errazten dutenak. Guzti hori sistema interkomunikazio pertsonalizatu (edukien inguruan sortzen diren zalantzak argitzeko adibidez) edo/eta taldekoan (foroaren bidez, gai anitzak proposatzen direnean) oinarritua, ikastaroan zehar aurkeztutako materialak osatu eta aberasten dituen.

* GAITEGIA

0. Sarrera
A. FAMILIARES ANTOLAKETA
<ol style="list-style-type: none">1. Familiaren funtzioak2. Inguru fisikoa3. Ordezko zaintza4. Familian parte hartzea: familia taldea5. Harremanak hezkuntza zentroarekin6. Harremanak familia zabalarekin7. Familia gatazka eta gurasoen estresa8. Eskolaz kanpoko jarduerak eta aisialdia
B. GARAPEN EREMUEKIN EZAGUTZA
<ol style="list-style-type: none">9. Garapen kognitibo-linguistikoa10. Garapen sozio-emozionala11. Garapen fisiko eta sexuala
C. GARAPENEAREN ESTIMULAZIOA
<ol style="list-style-type: none">12. Jolasa13. Empatia14. Irakurketaren estimulazioa15. Arauak eta mugak16. Hezkuntza estiloak17. Adierazkortasuna eta erregulazio emozionala18. Autonomia eta erantzukizuna19. Autoestimua
D. HAZKUNTZA GAKOAK
<ol style="list-style-type: none">20. Eguneroko kontuak21. Eskola jazarpena eta ziberjazarpena22. Eskola motibazioa eta errendimendua23. Heziketa afektibo-sexuala24. Teknologia berriak